

# GABON-EGUBERRI

Gabon, egun bateri dagokio. Eta Eguberri?

Egubarri-egun barri. Askorentzak urte barri eguna, gizaldi zurretan urtea Jesus'en jaiotz egunean asten zalako.

Alemania'n, XI gizaldian, orrela asten zan.

Katalu.ia'n, Tarragona'ko konzilio batek aginduta, 1180 urtean asi ziran era orretan.

Itali'ko erri andietan, XIII-XV garren gizaldien artean orrela egiten zan.

Espasa Calpe'ren esanetan, Aragon'en 1350 urtean asi ziran kristau era orregaz; Valencia'n 1358, Castilla'n 1383 eta Portuga-  
l'en 1442n. urtean.

Beraz euskaldunon eguberri be ortik etorri lei.

Gabonari buruz, gure oiturak ezagunak dira.

Nik etxean ikusten neban beti; aparta astean aitak edo amak ogiaren gaiñean kurutze ezaugarria egiten eben kutxilloagaz, eta kuskurra kendu eta gorde, urte guztian lizunduten ez zan sinistez.

Gabon-egunean, jan be ez gendun sukaldean edo eskaratzean egiten, gitxitan erabilten gendun jan-gelan baiño. Eta mai-gaiñeko edo mantel barririk ba'eukan, amak aletin egingo eban gau orretan ateraten.

Sagasti bat edo bi euki genduzen artean, gabon gabeko sutako autsa gorde egiten zan, jai ondoren sagastietara eroateko eta an zabaldu. Piztiak ilten ei ziran.

Jakiña da Bizkai'ko, erri askotan, gabon egunean iruten zan aria gorde egin bear izaten zala, lamiñen zirikaldiak uxatzeko atorrak egiteko.

Naparroa'ko erri batzutan, gau erdiko meza entzun ondoren, aparti berezi bat egiten da: sorgin-aparia deitzen dautsoe. Eta gau orretako ogia mai-gaiñean edo arazan lagaten da Andre Mari'k eta san Jose'k jan dagien.

Oituraz aberatsa dan egun eta aru onek, esaerak ugari eukiko ditunik ezin ukatu. Ara, betetik eta bestetik batuta, batzuk:

Ara bertan ezer ez, azak bai, koiperik ez, gabon egunean olakorik ez.

—Baserritarra, tirri-tarra, bota uzkarra, jan bedarra. Gabon eguneko azakin kaletarra nire parra.

Santu guztien egunetik egue-  
rritara, aize ta euri gitxi, lekak genbarara.

Eguberriak, zoroak ere igarri.

—Eguberri illargirik gabe, artzaiña arkumerik gabe.

Eguberri zerekin, urte berri arekin.

Abadearen lapikoa, txikia baiña gozua. Gurean gabonetan bakarrik aren aiñakua.

Onak dira ezkontzeko urtea, txarria ilteko astea eta gabon gabeko aparti prestatzea.

Gabon bon-bon, Natibitate ase ta bete. San Estebantxe beti len letxe.

Porru eta gatz, gabon gabeko barazkari latz.

Zuen osasunerako ta neure onerako. Datorren gabonean ala ez ba'ledi, nire orde zarrenak esan bedi.

—Iru ta iru sei, ta iru bederatzi. Oletako txakurrari dantzan erakutsi. Ezin ba dau ikasi, gabon gabeko aza jan erazi.

Eguberri, sua mokorrekin; paskoz adar meekin.

Oenezaroz leioan, paskotan sua.

Urteak aoa luze du. Eguberri-  
tatik bear da konturatu.

Dagonean bon-bon, eztagonean egon, gabonean danontzat dago ta ez lo egon.

Emotea on, artzea obe, gabon gauean iñor ez da probe.

gabon, daukanak bon-bon, eztaukanak zontzon.

Gabon, daukanak eztaukanari emon.

Zetarako jarraitu?

Abestietan be aberatsa da aro au. Gaurkoz bear ba'da guretarran artean ugarien zan aparta gogoratuko dogu:

Aza olioak pil-pil,  
besigua txir-txar,  
gaztaña erreak pin-pan,  
gabon da ta edan eta jan.